



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

éva Ferreira García andreak. UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen du dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin. *éva Ferreira García. Secretaria General de la UPV/EHU. Certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original.*
 Leioa, 2011 (e)ko irailaren 19ko erabakia (a)ren eskumena dela eta. *Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de 19 de septiembre de 2011, de la jefa de Secretaría General de la UPV/EHU.*



ERABAKIA, 2011ko irailaren 19koa, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordearena, Gurenduz zentroak antolatuko dituen ikastaroen programa babesteko dena.

RESOLUCIÓN de 19 de septiembre de 2011, del Vicerrector de Campus de Bizkaia de la UPV/EHU, por la que se procede a avalar el programa de los cursos a organizar por Gurenduz.

Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako 2011/2012 Arautegiko 60. artikulua dioenez (2011ko maiatzaren 30eko EHAA, 101 zenbakiduna), 1393/2007 Errege Dekretuak xedatutako antolamendua baino lehenagoko ikasketa planen kasuan prestakuntza osatzeko ekintzen bitartez lor daitezke aukera askeko kredituak, baldin eta kasuan kasuko ikasketa planak besterik ez badio.

Conforme al artículo 60 de la Normativa de Gestión para las enseñanzas de Grado y de Primer y Segundo Ciclo para el Curso 2011-2012 (BOPV nº 101 de 30 de mayo de 2011), en los planes de estudio anteriores a la ordenación establecida por el Real Decreto 1393/2007, es posible amortizar créditos de libre elección por actividades complementarias de formación, siempre y cuando su propio plan de estudios no lo impida.

62.11.b) artikulua ezartzen duenez, aukera askeko kredituak onartzeko, jarduera osagarritzat joko dira campuseko errektoreordetzak babesten dituen ikastaro, mintegi, hitzaldi, jardunaldi eta biltzarrak. Campuseko errektoreordetzak babestutako jardueren bidez unibertsitateko ikasle guztiek amortiza ditzakete aukera askeko kredituak, zer titulaziotan dauden matrikulaturik kontuan hartu gabe.

Conforme al artículo 62.11.b) tienen la consideración de actividades complementarias para el reconocimiento de créditos de libre elección los cursos, seminarios, conferencias, jornadas y congresos avalados por el Vicerrectorado de Campus. Tales actividades avaladas por el Vicerrectorado de Campus tienen reconocimiento para amortizar créditos de libre elección para todo el alumnado con independencia de la titulación en la que estuviera matriculado.

Hori guzti kontuan hartuta, eta aipatutako arautegiak ematen dizkidan ahalmenen babesean, honakoa

Por todo ello, y en ejercicio de la facultad que la citada normativa me atribuye,

ERABAKI DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- Babestea Gurenduz zentroak antolatuko dituen ikastaroak 2011/2012 ikasturtean.

Primero.- Avalar los cursos a organizar por Gurenduz durante el curso académico 2011/2012.

Bigarrena.- Erakunde antolatzaileak ikasleen jarraipena egingo du antolatutako jardueretan eta ziurtagiri bat emango die honakoak zehaztuta beren beregi: zer jarduera egin duten eta zenbat ordu eman duten horiek egiten, nor den antolatzailea, data eta ebazpen honen data eta egilea.

Segundo.- La entidad organizadora establecerá el seguimiento del alumnado participante en las actividades que desarrollen y entregarán al mismo un certificado con la indicación expresa de las actividades realizadas y horas correspondientes a las mismas, quién las ha organizado, fechas de las mismas y fecha y órgano de emisión de la presente resolución.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Hirugarrena.- Ikasleak, UPV/EHUko Akademia Gestiorako Arautegiko 63. artikuluan aipaturiko epeetan, ziurtagiri hori aurkeztuko du matriculatuta dagoen ikastegiko idazkaritzan kreditu horiek espedientean sar diezazkieten, prezio publikoak ordaindu ondoren.

Laugarrena.- Jarduera horietan kreditu bat emango da 15 ordurengatik. Ziklo bakarreko titulazioetan gehienez ere 20 kreditu emango dira, eta ziklo biko titulazioetan 30 kreditu.

Bosgarrena.- Ebazpen honek bakarrik balio du urriaren 29ko 1397/2007 Errege Dekretuak, unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua zehazten duenak (2007ko urriaren 30ko BOEko, 260zk.), ezarritako antolamendua baino lehenagoko ikasketa planak egiten ari diren ikasleentzat. Hau da, ez du balio Graduaren bat egiten ari diren ikasleentzat.

GARRANTZITSUA: Gai hau antolatzaileek jardunaldiak jakitera emateko prestatuko dituzten dokumentuetan eta, ahal bada bertaratze ziurtagirian ere, berariaz jaso beharko da.

Tercero.- Con este certificado el alumno, alumna se presentará, en los plazos señalados en el artículo 63 de la Normativa de Gestión Académica de la UPV/EHU, en la Secretaría del Centro en el que esté matriculado, matriculada para que, tras el abono de los precios públicos, sean incorporados al expediente.

Cuarto.- Para estas actividades se establece la equivalencia de 1 crédito por cada 15 horas hasta un máximo de 20 créditos por titulación de un ciclo y 30 créditos por titulación de dos ciclos.

Quinto.- Esta resolución es válida únicamente para el alumnado que esté cursando Planes de Estudios previos a la ordenación establecida por el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se dispone la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales (BOE nº 260 de 30 de octubre de 2007). Es decir, esta resolución no es válida para el alumnado que esté cursando alguna titulación de Grado.

IMPORTANTE: los organizadores de la actividad deberán informar al respecto en los documentos de difusión de la misma y, a poder ser, en el certificado de asistencia.

BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA / VICERRECTOR DE CAMPUS DE BIZKAIA

Carmelo Garitaonandia Garnacho.

